


## Ikasgaiari buruzko iritzia: **JARRERA**

Ikasgaia interesgarria eta motibagarria aurkitzen dugu (% 86), nahiz eta batzutan zalantzak izan (% 14)




## Ikasgaiari buruzko iritzia: **GAIEN HAUTAKETA**

Ikasgaia oso zabala da. Hori dela eta, gehienek (% 64) nahiago dugu gai batzuk eman eta besteak baztertu. Dena den, gai guztiak eman nahi dugunok ere bagaude (% 29).




## Testu-liburuaren funtzioa: ERABILPENA KLASEAN

Gehienok ez dugu testu-libururik erabiltzen (%64). Besteok, testu-liburu ezberdinak erabiltzen ditugu.



## Testu-liburuaren funtzioa: SEKUENTZIAZIOAREN AZTERKETA


Testu-liburuak interesgarriak egiten zaizkigu gaiak nola sekuentziatu aztertzeke (% 57).



# Inkesta


Testu-liburuaren funtzioa: **IRAKASLEGOAREN FORMAKUNTZA**

Testu-liburuak baliagarriak dira gure formakuntzarako (% 50).




## Testu-liburuaren funtzioa: **AZALPENAK**

Aldiz, gure ustez testu-liburuak ez dute balio klasean azalpenak emateko (% 57-ik esaten dugu ezetz).




## Testu-liburuaren funtzioa: **ARIKETAK**

Bertan dauden ariketak egitea interesgarria aurkitzen dugu (% 43-ek esaten dugu hori).



## Testu-liburuaren funtzioa: PLANTEAMENDUA

Liburuen planteamendu orokorra klasikoegia, gaiaren filosofiaren aurkakoa aurkitzen dugu (% 50) eta metodologia aktiboagoa nahiko genuke (% 21).




## Teknologia Berriak (Arbel Elektronikoa): GAIA AZALTZEAN

Teknologia berriak eta bereziki arbel elektronikoa oso egokitzat jotzen dugu gaia azaltzeko (% 100)




## Teknologia Berriak (Arbel Elektronikoa): IKASLEEN AURKEZPENAK

Teknologia berriak eta bereziki arbel elektronikoa oso egokitzat jotzen dugu ikasleen aurkezpenetarako (% 93)




## Teknologia Berriak (Arbel Elektronikoa): ZAILTASUN TEKNIKOAK

Teknologia berriak eta bereziki arbel elektronikoaren erabilpena ez dugu teknikoki zaila aurkitzen (% 71)



## Teknologia Berriak (Arbel Elektronikoa): ANTOLAKETA

Teknologia berriak eta bereziki arbel elektronikoaren erabilpena erabiltzeko nahiko zailtasunak ditugu antolaketa aldetik (% 43)



## Metodologia: EGOKIENA IKUSTEN DUGUNA

Gure ustez metodologia egokiena metodologia tradizionala (azalpenak + ariketak) eta aktiboagoaren (talde-lana + aurkezpena) arteko konbinazio egokia da (% 100)

## Metodologia: ERABILTZEN DUGUNA

Gure kasuan erabiltzen dugun metodologia metodologia tradizionala (azalpenak + ariketak) eta aktiboagoaren (talde-lana + aurkezpena) arteko konbinazioa da (% 100)

## Konklusioak

**Ikasgaia** interesgarria eta motibagarria da. Curriculuma oso zabala denez, komenigarria da gaien hautaketa egitea.

**Testu- liburuek** balio mugatua dute: interesgarriak dira irakasleentzat sekuentziazioa prestatzeko, formakuntzarako eta zenbait ariketa egiteko. Baina aldi berean ez dugu lagungarria ikusten klasea emateko; klasikoegiak dira eta ez diote metodologia-aldaketari erantzuten.

**Arbel elektronikoa** oso baliabide positiboa da klaseak emateko eta ikasleen aurkezpenetarako eta arbel elektronikoak erabiltzea ez dugu zaila ikusten; zailtasun nagusiena baliabideen antolaketa da zeren askotan ez daude gure eskura.

**Metodologiari** dagokionez, iruditzen zaigu metodologia bakarra ez dela egokiena eta zenbait metodoen konbinazioa erabiltzea dela bide egokiena.